

Sarasateren biolina

Musika-ipuina biolina, orkestra eta narratzaileerako

Musika Pablo Sarasate, Pablo Luna eta Miguel Astráinena

Ipuina Fernando Palaciosena

Gida didaktikoa

Manuel Horno

AURKIBIDEA

- 1.- IPUINAREN ESKEMA
- 2.- KONTZERTUKO MUSIKA LANAK
- 3.- GIDAREN AURKEZPENA
- 4.- PABLO SARASATE. BIBLIOGRAFIA
- 5.- SARASATEREN LANEN KATALOGOA
- 6.- BIOLINA
- 7.- PABLO LUNA ETA MIGUEL ASTRAIN
- 8.- JARDUNAK
- 9.- ZENBAIT ENTZUNALDIRI BURUZKO IRUZKINAK IKASGELAN LAN EGITEKO

1.- IPUINAREN ESHEMA

Sarrera: Istorio bat notarioarengana

I – Instrumentu sekretua

II – “Biolin Gorria”ren istorioa

III – Artista miniaturan

IV – Bidaia Parisera

V – Sanferminetara itzulita

VI – Egia ala gezurra?

2.- KONTZERTUKO MUSIKA LANAK

SARASATE

La Caza, Op. 44

El sueño, Op. 11 (con piano)

El Duendecillo, Op. 48

Aires Bohemios, Op. 20

Muñeira. Introducción de violín solo

Introducción y Tarantella, Op. 43

Jota de Pablo, Op. 52 (con piano)

Habanera, Op. 21, 2

Zapateado, Op. 23, 2

MIGUEL ASTRAIN

Alegría de San Fermín. Vals (Riau, riau) (1883)

PABLO LUNA

El asombro de Damasco: Ali-Mon y Seis Guardias (1916)

3.- GIDAREN AURKEZPENA

2008ko urte honetan, nazioartean itzalik handiena lortu duten musikari nafarretako baten heriotzaren urteurrena ospatzen dugu, Pablo Sarasate biolin jolearena, hain zuzen ere. Haren musikara hurbiltzeko, eta ikasleak hurbilarazteko ere, une guztiak egokiak badira ere, iduri lezake ehungarren urteurrena bezalako gertakizun batek abagune are egokiagoa dela. Lehenik eta behin, pentsatzekoa da Sarasate izena, gehiago edo gutxiago, ezaguna dela ikasleentzat. Iruñean Pasealekua eta Musika Kontserbatorioa ditugu hari eskainiak, Nazioarteko Biolin Sariketa ere bada, eta San Fermin jaiekin ere lotzen dugu haren izena. Edonola ere, gerta liteke erreferentzia horiek ez izatea gure ikasleen gogoan, baina abiapuntu gertukoa izan daitezke, batez ere Iruñean bizi direnentzat.

Programa elikatzen duten pieza gehienak Sarasaterenak badira ere, beste bi musikagileren lanak, Pablo Luna eta Miguel Astrainenak, alegia, ageri dira istorioan, biak ere lotuak baitira Sarasateren nafartasunarekin, aurrerago ikusiko dugun bezala.

Ohikoa denez, gida didaktikoaren asmoa irakasleari laguntza eskaintzea da, ondoren kontzertura joatekoa prestatu ahal izan dezan, beti ere gogoan izanik ikasgelatik kanpo egiten den jarduna probetxugarriagoa izaten dela alde zuzenetik ikasgela barnean prestatu bada. Bi protagonista argi ditugu kontzertu honetan: Sarasate, musikagile den aldetik, eta Biolina, instrumentua. Horregatik hasiko dugu gida hau biei buruzko informazioa eskainiz: biografia labur bat eta instrumentuaren gaineko zenbait datu. Ondoren, programaren beste bi musikagileei buruz hitz egingen dugu, Sarasaterekin izan zuten harremana azalduz, eta amaieran jardun sorta bat proposatuko dugu, irakasleak, oinarri horren gainean, eta bere ikastaldearen ezaugarrien arabera, alderdi zehatzak lantzeko aukera izan dezan.

4.- PABLO SARASATE. BIOGRAFIA



Sarasate eta Gaiarre tenorea, biak ala biak, XIX. mendearen amaieran eta XX. mendearen hasieran nazioartean itzalik handiena izan duten bi nafarrak dira. Sarasateren izen osoa Martin Melitón Sarasate y Navascués da. 1844an jaio zen, San Melitón egunez, Iruñean. Haren guraso Miguel Sarasate Juanenak eta Francisca Javiera Navascués Oacharenak hiru alaba ere izan zituzten: Micaela, Francisca eta Maria. Txikitatik hasi zen musika ikasten, gurasoek bultzaturik. 7 urte besterik ez zituela kontzertua eman zuen biolinaz A Coruñan. Santiago de Compostelan ikasi zuen 1846 eta 1849 bitartean, José Courtier, Katedraleko lehen biolina eta Santiago de Compostelako Musika Eskolako irakaslearekin. Parisko Kontserbatoriora 1856an sartu zen, hau da, 12 urte zituela. Ikasten buru belarri aritu zen urte haietan, haren amaren eskutitzek adierazten duten moduan: "esklabo bihurtuta nago hark ikas dezan", edo 1853ko uda beroan idatzitako beste batean: "egunotan Martin gaixoari izerdia dario ikasten ari dela". Pixkanaka, biolinista nazioartean ezaguna bilakatzen da, eta bizitza Europa eta Amerikako aretorik garrantzitsuenetan kontzertuak emanez igaro zuen. Hala ere, Iruñera ere aldiari behin etortzen zen, batez ere San Fermin jaietan, eta beraz, bertakoek urtero hari aditzeko aukera izaten zuten. 1906an lagun bati idatzitako gutun batean honela zioen: "gauza bat ez da aldatu, ez eta aldatuko ere: nire herrikide maiteekiko maitasuna". Kontatu ohi denez, gau batean, sanfermin jaiak zirela, iruindarrak haren ostatu izaten zen La Perla hotelean bildu eta jotzeko eskatu zioten; bai Sarasate atera eta jotzen hasi ere.

Sarasateren beste alderdi bat musikagilearena da. Haren konposizioek pasarte oso zailak dituzte, birtuosistikoak deitzen direnak, eta horiek ematen digute, garai hartako kronikekin batera, biolinista honen birtuosismoaren berri. Izan ere, pentsatzekoa baita, Sarasatek ez zuela idatzi izanen berak jo ez zezakeen pasarterik.


Ondoren, Sarasateren lanen katalogoaren zerrenda bat eskaintzen dugu. Katalogoak opus (lan) zenbaki batez zenbatzen dira. Ikusten denez, 57 dira hark konposatutako lanak, haietatik hiru zenbaki gabeak.

5.- SARASATEREN LANEN KATALOGOA

- Fantasía Capricho, opus 1 Violín & piano
- Souvenir de Fausto, opus 2 Violín & piano
- Mazurka en Mi, opus 3 Violín & piano
- Fantasía de La forza del destino, opus 4 Violín & piano
- Homenaje a Rossini, opus 5 Violín & piano
- La dame blanche de Boieldieu, opus 6 Violín & orquesta
- Réverie, opus 7 Violín & piano
- Fantasía de Romeo y Juliette, opus 8 Violín & piano
- Capricho on Mireille, opus 9 Violín & piano
- Confidencias, opus 10 Violín & piano
- Recuerdo de Domont, opus 11 Violín & piano
- Los adioses, opus 12 Violín & piano
- Serenata andaluza, opus 13 Violín & piano
- El sueño, opus 14 Violín & piano
- Moscovienne, opus 15 Violín & piano
- Fantasía de Fausto, opus 16 Violín & orquesta
- Fantasía de Der Freischütz, opus 17 Violín & orquesta
- Mosaico de Zampa, opus 18 Violín & piano
- Gavota on Mignon, opus 19 Violín & piano
- Prière at Berceuse, opus 20 Violín & piano
- Aires españoles, opus 21 Violín & piano
- Fantasía de Martha, opus 22 Violín & piano
- Zigeunerweisen, opus 23 Violín & orquesta
- Malagueña y Habanera, opus 24 Violín & piano
- Romanza andaluza y jota navarra, opus 25 Violín & piano
- Playera y zapateado, opus 26 Violín & piano
- Capricho vasco, opus 27 Violín & piano
- Fantasía de Carmen, opus 28 Violín & orquesta
- Vito y habanera, opus 29 Violín & piano
- Jota aragonesa, opus 30 Violín & piano
- Serenata andaluza, opus 31 Violín & piano
- El canto del ruiseñor, opus 32 Violín & orquesta
- Bolero, opus 33 Violín & piano
- Balada, opus 34 Violín & piano
- Muñeira, opus 35 Violín & orquesta
- Navarra, opus 36 Violín & orquesta
- Aires escoceses, opus 37 Violín & orquesta
- Peteneras, capricho español, opus 38 Violín & piano
- Jota de San Fermín, opus 39 Violín & piano
- Zortzico Adiós montañas mías, opus 40 Violín & piano
- Viva Sevilla, opus 41 Violín & orquesta
- Zortzico de Iparragirre, opus 42 Violín & piano
- Introducción y fandango, opus 43 Violín & piano
- Introducción y capricho-jota, opus 44 Violín & orquesta
- Zortzico Miramar, opus 45 Violín & orquesta
- Introducción et tarantelle, opus 46 Violín & orquesta
- La caza, opus 47 Violín & orquesta
- Nocturno — Serenata, opus 48 Violín & orquesta
- Gondoliéra Veneziana, opus 49 Violín & piano
- Melodía rumana, opus 50 Violín & piano
- K'Esprit Follet, opus 51 Violín & orchestra
- Canciones rusas, opus 52 Violín & orquesta
- Jota de Pamplona, opus 53 Violín & orquesta
- Fantasía de Don Giovanni, opus 54 Violín & piano
- Jota de Pablo, opus 55 Violín & orquesta
- La Rève, opus 56 Violín & piano
- Fantasía de la flauta mágica, opus 57 Violín & orquesta

6.- BIOLINA

Biolina (etimologia: italierazko *violino* hitzetik, *viola* edo *viellaren* txikigarria) haria igurtziz jotzen den instrumentua da, lau hari dituena, bosten tarteetan afinatuak: sol3, re4, la4 eta mi5. Sonoritatearik grabeeneko haria sol3 da, eta haren segidan, behetik gora re4, la4 eta mi5.



Biolinaren hariak pentagraman irudikatuak

Biolinerako musikaren partiturek ia beti sol kabea erabiltzen dute. Biolinaren ezaugarria da trasterik ez izatea, gitarrak bezala, horrek zaildu egiten duelarik haren ikasketa, ez baita afinaziorako ukitutuko erreferentziarik. Harizko instrumentu klasikoaren familiako agudoena da, bere kide txeloa, biola eta kontrabaxuaren aldean.

Arkua makila estua da, okerdura leun bat egiten duena. 77ren bat cm da luze, eta 70 cm-ko hari bat du, zaldi-isatseko 100-120 zurdez osatua. Hariak dardaratzeko eta era eraginkorrean hots egin dezaten, zaldi isatsezko zurdak aldian behin eta era egokian igurtzi behar dira erretxinaz. Maiz, kostua merkatze aldera, zuntz binilikoez ordezkutzen da zaldi-zurda.



Madrilgo Errege Jauregiko bildumako Stradivarius biolina.

7.- PABLO LUNA ETA MIGUEL ASTRÁIN



Pablo Luna Carné (Alhama de Aragón, Zaragoza, 1879ko maiatzaren 21a – Madrid, 1942ko urtarrilaren 28a), zartzuela espainolaren sortzaile jorienetakoa da, eta gainera generoaren estilo berri bat, Vienako operetan inspiratutakoa, sortu zuten egile nabarmenetakoa bihurtu zen.

Solfeoko lehen ikasketak Alhamako elizan egin zituen. Han bizi ziren aita, Pablo Luna Ferrer, Guardia Zibileko funtzionarioa, hara aldatu baitzen bizitzera.

Harmonia eta konposaketa ikasi zituen. Biolin jole gisa hoteletan, kafetegietan eta elizetan aritu zen eta, ganbera orkestra txiki baten laguntzaz, antzokietan ere bai. 1903an idatzi zuen bere lehen zartzuela, *Lolilla*, *la Petenera*, eta ondoren, 1904an, *La Escalera de los Duendes*.

1905ean Madrileran joan zen zartzuelaren mundua hobeki ezagutzera, eta harremanetan jarri zen “género chico” delakoan ordurako ezaguna zen musikagile batekin, Ruperto Chapíekin, alegia, eta baita ere Zartzuelako Antzokiko bigarren zuzendariarekin, Tomás Barrera Saavedrarekin, eta giro madrildarreko beste musikari batzuekin. Ezagutu ere, Luis Pascual Frutos libreto egilea ezagutu zuen, eta elkarrekin aritu ziren lanean.

Zaragozan arrakasta handiz estreinatu zuen 1911ko martxoaren 11n bere zartzuela *Molinos de Viento*. 1918an, berriz, bere lan handietako bat estreinatu zuen, *El Niño Judío* izenekoa, estilo berriaren erakusgarria, exotismo eta fineziaz josia. 1925eko martxoan Luna Carnéren omenezko kontzertu handi bat antolatu zen, eta hiriaren urrezko domina eman zioten.

Haren lan ezagunenetakoa *El Asombro de Damasco* izenekoa da.

Hamaika libreto ere idatzi zituen, *García Sandoval* ezizenaz.

Sarasateren biolina

Música en Acción

Miguel Astrain musikaria iruindarra zen, bertako historiara igaro dena sanferminetako musiketarik herritarrek gehien maite dutenetako bat sortu zuelako, alegia, *Alegria de San Fermín* izeneko tema, herritarrek *Vals de Astrain* izenaz ezagutzen dutena. Ez da ezaguna konposatu zueneko urte zehatza. Egileak 1883an estreinatu zuen Miserikordia Etxeko Musika Bandarekin, haren zuzendaria baitzen. Partitura Iruñeko Udaletxean gorde zuten 1907an, eta beste musikari batek, Venancio del Hoyok, hain zuzen ere, transkribatu zuen.

Riau Riau izenekoa egiten zeneko arratsaldean musika honen airean dantzatzen ziren gazteak, Udal agintariei traba egiten zieten bitartean, Udaletxetik San Lorenzo Elizara, San Fermín Kaperara, egin ohi zuten bidean. Eta Ibilbidea amaiezina izaten zenez, segizio hartako musika banda, La Pamplonesa, tema hura etengabe jo beharrean suertatzen zen, hamaika aldiz, behin eta berriro jotzen zutela. 1990eko urteetan Riau Riau delakoak halako itxura hartu zuen, Udalak bertan behera uztea erabaki zuen. Auzi politikoetatik haratago, Astrainen Balsaren doinuak jarraitzen du izaten Iruñeko jaietako ardatz nagusietakoa.

Sortzez, hitzik ez zuen doinu horrek, baina aurrerago erantsi zitzaion, Maria Luisa Ugalderi letra egokia sortzeko agindua emanda. Sarrera hitzik gabe doala, hona hemen letra osoa:

**"A las 4, el 6 de julio
Pamplona gozando va
pasando calles y plazas
las Vísperas a cantar
al glorioso San Fermín
patrón de esta capital
que los pamplonicas aman
con cariño sin igual.**

**Delante van
chiquillos mil
con miedo atroz dicen: ¡Aquí!
un cabezón viene detrás
dando vergazos y haciendo chillar.**

(¡¡Riau-Riau!!)

**Después vienen los muchachos
en un montón fraternal
empujando a los gigantes
con alegría sin par
porque llegaron las fiestas**

**de esta gloriosa ciudad
que son en el mundo entero
una cosa singular.**

(¡¡Riau-Riau!!)

**Los mozos de blusa
que son los que dan animación
con los pollos-pera
van todos unidos en montón.**

**Los de la Pamplonesa
detrás vienen tocando
van a honrar a San Fermín.**

**Toda la ciudad
con movimiento contemplando está
la gran caravana
que alegre hasta San Lorenzo va.**

**Los del Ayuntamiento
con mazas y timbales
van a honrar a su patrón."**

Riau-Riau!! oihua ez da ageri jatorrizkoan, baina 1914tik aurrera oihukatzen da.

7.- JARDUNAK

- Konpositorearen bizitza kontatzea. Seguruenik, ikasle anitz izanen dira, honezkero Sarasateren antzera musikan trebatzen ari direnak, instrumenturen bat ikasiz, doinuak asmatuz, edo musika talderen batean joaz. Adin hauetan trebetasunik landuenak izaten ez badira ere (kirol trebetasunen aldean), une egokia izan daiteke horri buruz hizketan aritzeko.
- Gauden une honetan, 10 eta 13 urte bitarteko ikasleek gogoan izaten duten ideia zera da, arrakasta erdiestea telebista saio batean onartua izatean datzala. Garrantzitsua da nabarmentzea musikagile hauen biografian gainditu beharreko zailtasuna eta artista izatera iristeko egin beharreko eginahala, are gehiago egun hauetan, non eginahalak egitea ez baita, hain zuzen ere, gure kulturaren ezaugarri.
- Aldez aurretik landu beharreko alderdi garrantzitsu bat honako hau da, alegia, kontzertuan izan beharreko portaera, musikariekiko eta artistekiko begirunea, isiltasunean islatzen dena.
- Kontzertuan entzunen diren piezak biolinerako idatziak dira, orkestraren laguntzaz. Hona hemen orkestra osatzen duten instrumentuak. Sailkatu familiaka. Kontsultatu nola banatu ohi diren instrumentuak orkestra batean, marrazki bat edo collage bat egin moztutako argazkiez. Eska daiteke kontzertuan erreparatzeko, ea euren ohikotzat aurkitu duten banaketa eta han ikusten dutena ber-berak diren.

Txirula txikia
Txirula
Oboe
Klarineta
Fagota
Tronpa
Tronpeta
Tronboia

Tinbalak
Kaxa
Bonboa
Biolinak
Biolak
Biolontxelo
Kontrabaxua

Sarasateren biolina

Música en Acción

- Kontzertu baterako irteera prestatzerakoan, egin beharreko jardun funtsezkoenetako bat honako hau da, alegia, ahal den neurrian, ikasgelan bertan entzutea ondoren bertatik bertara entzunen diren lanak. Pablo Sarasateren lan guztiak bildurik daude RTVE Musicaren edizio batean, Santa Zezilia Orkestraren eskutik (egun Nafarroako Sinfonikoa), eta Nafarroako Gobernuko Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren laguntzaz. Beraz, ez da eskuratzeko zaila. Ondoren, zenbait iruzkin egiten ditugu, ikasgelan entzunen diren lanen oinarri egokia izan daitezkeen lan hautatu zenbaiti buruz. Oro har, egokia da lehenbizi entzutea, aldezturik ezer komentatu gabe. Nire ustez ona da musika sartzea “aurrez abisatu gabe”. Ondoren lan daitezke zenbait kontzeptu teoriko, atzera ere entzunen direnak arreta berezia jarritz, esaterako tesitura, agudoa, grabea, birtuosismoa, eskala, tempo aldeak, “acelerando”, “diminuendo”...

9.- ENTZUNALDIEN GAINEN ZENBAIT IRUZKIN, IKASGELAN LAN EGITEKO LAGUNGARRI.

Aires Bohemios, Op. 20

Hasieratik planteatzen du Sarasatek hain berea duen nahasketa hori, pasarte oso lirikoak dituen, tarte txikietan birtuosismoa dela nagusi, noten arintasunagatik eta agudoen goratasun mailagatik.

Alde-aldera zazpi minutu eta erdira, bat batean, tempoa aldatzen da, eta oso biza bihurtzen da. Lirismoak bide ematen dio birtuosismo hutsari. Edertasun handiko lana da, aukera eman dezakeena egoera oso desberdinak irudikatzeko. Proposatu ikasleei zerbait idazteko lan hau entzuteak iradokitzen dienari buruz.

Introducción y Tarantella, Op. 43

Sarrera motela, ukitu malenkoniatsua duena. Nabarmendu nola hartzen duen tesitura zabala, grabetik agudora. Pixkanaka, tema oso melodikoa egitetik beste bat oso birtuosistikoa egitera igarotzen da. Adibide ona bi kontzeptu hauek desberdintzeko. Zein dugu gustukoena? Zergatik?

Pizzicatoa erabiltzen du, hariak hatz puntez joaz, arkuaz jo beharrean. Pizzicatoa biolina jotzeko teknika da, hariak hatzez "zimurkatuta" egiten dena, arkuaz igurtziz jo beharrean. Sarasatek oso maiz erabiltzen du baliabide hau.

Jota de Pablo, Op. 52 (pianoaz)

Sarrera birtuosistikoa. Gitarra joleak jotetan bezala, horrelaxe aritzen da orkestra, jotaren erritmo berezkoa daramaten akordeen laguntzaz. Urrats graduala dago tempo motel batetik beste arin batera, jotan ohikoa den moduan. Erreparatu ere, nola darabilen teknika, pizzicatoan jotako notak arkuaz jotakoekin nahasiz.

Litekeena da, are gehiago Nafarroako Erriberako ikastetxeetan, ikasleren bat jota talderen batean aritzea. Interesgarria litzateke hark jota bat kantatzea, eta lan honekin konparazioa egitea. Jota esaten ahal zaio? Zergatik?

Sarasateren biolina

Música en Acción

Habanera, Op. 21, 2

Lirismoa eta birtuosismoa tartekatzen direneko beste adibide bat. Agudoa eta grabea kontzeptuak lantzeko baliagarria, esaldi txikiak tesitura oso aldenduetan errepikatzen baititu, eta gorako eta beherako eskala arinak egiten ditu ia biolinaren tesitura osoan barna.

Biolinaren teknikaren beste alderdi bat ageri da hemen, azaltzea komeni dena: hari bikoitzen kontua da. Itxuraz, biolina instrumentu monodikoa da, argi baitago hari bat igurtzita soinu bakarra ateratzen zaiola. Ez dago aukerarik hari batek aldi berean bi soinu egin ditzan. Baina badago bi hari aldi berean jotzea, eta horrek gure instrumentua polifoniko bihurtzen du.

Zapateado, Op. 23, 2

Lan honetan birtuosismoa lirismoaren gaineratik dago.